

EGKren diseinatzaile gazteen lan poltsan sartzeko baldintzak

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak (EGK) diseinatzaile gazteekin harremana izan nahi du 2020an sortuko diren lanak antolatzeko. Lan poltsa osatuko da izena eman eta aukeratzeko diren diseinatzaileekin eta, urtean zehar, beharren arabera, lanak banatuko dira ekintza bakoitzeko aurrekontu zehatzak adostuz.

Egin beharreko lanak

Hauek dira 2020an zehar EGK-k beharko dituen lanak diseinuaren arloan:

- EGKren lan-arloek egunerokoan eta ekitaldien bidez garatutako txostenen maketazio eta diseinua.
- EGKren irudia garatzeko marrazki, ilustrazio eta bestelakoak.
- Proiektu edo egitasmo zehatzak zabaltzeko irudi sinbolikoak.
- EGKren ekintzen zabalpenerako euskarri eta material grafikoak: kartelak, esku-orriak, liburuxkak...
- Kanpaina eta deialdi konkretuak egiteko ikus-entzunezko produktuak.
- Antolatutako ekitaldien laburpen bideoak.

Porfolian egindako antzeko lanak aurkeztu behar dira.

Balorazioa

Aurkezten diren proposamenen artean, **aurretik egindako antzeko lanen portfolioa baloratuko da. Parte hartzen duten pertsonak edo enpresek, derrigorrez fakturatzeko gaitasuna izan behar dute.**

Gainera baloratuko da:

- 18-30 urte bitarteko gaztea izatea edo pertsona gazteez osaturiko enpresa izatea.
- Bai gaztelaniaz bai euskaraz (EGA edo parekorik) lan egiteko gaitasuna. Maila altua.
- EGKren kidea den entitate batean egotea edo plataformarekin loturaren bat izatea.
- EGKren estiloa, terminologia eta izaera ezagutzea

Epeak

Interesa duten pertsonak edo enpresek bere **curriculum**a eta **portfolioa** aurkeztu behar dute **2020ko martxoaren 27ko** eguerdiko 12.00ak baino lehen **“diseinatzaile gazteak”** gaiarekin komunika@egk.eus helbidera bidaliz. Proiektuak aztertuko dira eta pertsona guztiei jakinaraziko zaie aukeratuak izan diren ala ez.

Informazio gehiago jakiteko, 943429767 / 688675932 telefonora deitu edo komunika@egk.eus helbidera idatzi (Jon Agirre Iztueta, EGKren komunikazio teknikaria).